# Ahozko adierazpena lantzeko ipuina. Uda



Itzulpena:
@pausozpausopt

@susanaalbancess
albances.wordpress.com

Urtero bezala, Saioak udako oporrak iristea nahi zuen, aitona-amonekin herrira joateko. Eskolatik irten zenean, etxera joan zen korrika maleta egitera. Zer sartuko zenuke?





( Haurrek gauza ezberdinak esango dituzte) .

Ezin zuen bere koaderno berria ahaztu bere abentura guztiak idazteko. Saioa trenean lehen aldiz ibiltzekoa zen, eta lehengusuak geltokira iristean zain izango zituen.





Zein lekutara joan zara edo joan nahiko zenuke trenez?

Amonak makarroiak egin ditu gaur tomatearekin jateko, eta postrean mmmm sandia, zein goxoa! Zer fruta ezagutzen dituzu zuk?









albances.wordpress.com

( Haurrek fruta desberdinak esango dituzte) .

Saioak badaki bizikletan ibiltzen, aitona-amonek urdin koloreko bat oparitu diote. Azkenean hondartzara bizikletan joateko aukera izango du!





Itzulpena: @pausozpausopt
albances.wordpress.com

Trabiiiiis! Trabiiiiis! -oihu egiten dute haurrek. Txakurtxoa ez da inon ageri. Amonak sotoko atea ireki du eta txakurra euliekin entretenituta aurkitu dute. Zein maskota dituzue edo nahiko zenukete eduki?





(Haurrek maskota desberdinak esango dituzte).

albances.wordpress.com
Itzulpena: @pausozpausopt

Amona, amona hortz bat erori zait! Amonak kontu handiz gordetzen du hortza burkoaren azpian, Perez sagutxoak opari bat utz diezaion neskatoari.



Itzulpena: @pausozpausopt

albances.wordpress.com

Goizean, Saioa jaikitzen denean, korrika joaten da lehengusuengana Perez saguak ekarri dion pelutxea erakustera. Eta zuei sagutxoak zer utzi dizue?



Itzulpena: @pausozpausopt

albances.wordpress.com

Uda herrian zoragarria da, Saioa hondartzara joan daiteke, igerilekura, bizikletan ibili, patinekin, maskorrak hartu, hareazko gazteluak egin, lehengusuekin jolastu.






Itzulpena: @pausozpausopt

albances.wordpress.com

Eta zuei zer gustatzen zaizue udan egitea?



Itzulpena: @pausozpausopt

albances.wordpress.com